

**2020ko IRAILAREN 10ean UDALBATZARRAK EGINDAKO EZOHICO
OSOKO BILKURAREN AKTA** **09 zk.**

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2020ko irailaren 10ean, arratsaldeko zazpitan, Udalbatzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen ezohiko bilkura egiteko xedez.

Udalbatzako kide hauek bertaratu dira:

Batzarburua	Xabier Txurruka Fernandez jn.
Zinegotziak	Miren Letamendia Belloso and. Jesus Arana Gomez jn. Iratxe Zorrozueta Eguiazabal and. Leire Arana Olabarrieta and. Ixidor Larrañaga Ayerbe jn. Iker Basurko De Miguel jn. Irene Urbietta Alberdi and. Itziar Murua Uria and. Ion Arozena Eizagirre jn. Ainara Landa Argote and. Begoña Olaizola Elordi and. Xabier Etxaburu Elu jn. Jesus Goikoetxea Balentziaga jn. Eider Illarramendi Azkue and. Patxi Elola Azpeitia jn. Oihane Delgado Pita ad.
Ez dira etorri	Mikel Goenaga Gubia jn. Iban San Martin Hernandez jn. Jon Andoni Urdangarin Urrutia jn. Gloria Vazquez Herranz and.
Idazkaria	Ines Diaz de Villafranca Arzamendi and.

Bilkurari hasiera emanda, **batzarburu** jaunak adierazi du bilkura apartekoa dela eta horren arrazoia dela, hain zuzen ere, erabakia hartzeko ezarrita dauden epeak bete beharra.

Aldi berean, jakitera eman du EAJ-PNV udal taldeko zinegotzi **Iban San Martin Hernandez** jaunak berari utzi diola botoa, eskuordetzan, aitasunagatik dagokion atsedena irauten duen bitartean, apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, 25.6 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Ondoren, eguneko aztergai bakarria aztertu eta eztabaidatu du Udalbatzarrak.

GAI-ZERRENDA

Bakarria.- ZARAUZKO KALE GARBIKETA ZERBITZUA KUDEATZEKO KONTRATUA: ZERBITZUA EGITEN JARRAITZEA.

Espedientea: 2009I1200001

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20200910&punto=1>

Akordio-zirriborroa irakurri ostean, proposamena eztabaidatu eta bozkatu dute. Bozketak emaitza hau izan du:

Botoak alde:	9 EAJ-PNV, 7 EH Bildu, 1 PSE-EE
Botoak aurka	
Abstentzioak:	1 Podemos-Equo Berdeak

Ondorioz, adierazitako gehiengoarekin, Udalbatzarrak erabaki hau hartu du:

“Zegokion administrazio-espeditentea tramitatu ondoren, 2009ko uztailaren 29an egindako osoko bilkuran, Udalbatzarrak erabaki zuen UTE FCC-SERBITZU enpresari ematea, behin-behineko izaeraz, ZARAUZKO UDAL MUGAPEAN HIRI-HONDAKINAK ETA ASIMILAGARRIAK BILDU ETA GARRAIATU, KALEAK GARBITU ETA ANTZEKOAK EGITEKO ZERBITZU PUBLIKOA kudeatzeko kontratua, urteko 1.449.948,47 euroko prezioan (BEZ sartuta).

2009ko irailaren 3an egindako bilkuran, Tokiko Gobernu Batzarrak behin betiko esleitzea erabaki zuen, eta administrazio-kontratua 2009ko irailaren 17an sinatu zen.

Alkatetzaren 2010eko urtarrilaren 28ko 0109 Dekretuaren bitartez, enpresak izena aldatu zuela jakin zuen Udalak. Orduetik aurrera adjudikaziodunaren izena ZARAUZKO GARBIKETA UTE da.

2016an Udal Elkarteak eta eskualdeko udalek batera egindako azterketaren emaitza gisa (“Egungo zerbitzuei buruzko azterketa” eta “Bilketa sistema berriari buruzko azterketa”) eta Urola Kostako Udal Elkarteko Batzar Nagusiak hala proposatuta, 2017ko maiatzaren 25ean egindako osoko bilkuran, Udalbatzarrak Estatutu arautzaileen 5. artikulua aldaketa onartu zuen. Horren ondorioz, Udal Elkarteak udalen eskumeneko zerbitzu hau bideratu eta eskainiko zuen: “Etxeetan sortutako etxeko hondakinak eta merkataritza eta zerbitzuetan eta industrian sortzen diren etxeko hondakinen antzekoak bildu eta garraiatzea”. Zerbitzua 2018ko urtarrilaren 22tik aurrera jarriko zen martxan.

Horiek horrela, 2017ko abenduaren 28an egindako osoko bilkuran, sinatutako kontratua aldatzea eta iraupena urtebete gehiago luzatzea erabaki zuen Udalbatzarrak (amaiera epea 2020ko irailaren 16a).

Aldatutako kontratua 1.151.248,67 euroko prezioa du (BEZ sartuta), eta bertan prestazio hauek sartzen dira:

- Kale garbiketa
- Malekoiko gaikako bilketa
- Zerbitzu orokorrak
- 7. garbiketa zona
- Garbiketa ur-makina bidez

Geroago, 2019ko azaroaren 19an egindako osoko bilkuran Udalbatzarrak hartu zuen erabakiaren bidez, prezioen azken berrikuspena onartu zen eta prestazio guztiak kontzeptu bakar batean -KALE GARBIKETA- sartu ziren, guztira 1.172.239,23 euroko prezioan (BEZ sartuta).

Herrilan, Azpiegitura eta Zerbitzuetako Departamentuak egin duen 0371/2020 txostenean honako hau adierazi du: hainbat arrazoiengatik –horien artean Covid-19ak eragindako pandemiagatik bizi izandako alarma egoera–, ezinekoa dela adjudikazio berria egiteko hasita dagoen prozedura amaitzea indarrean dagoen adjudikazioaren epemuga baino lehen.

Azpitarratzen du, halaber, zerbitzua ematen jarraitzeko beharra dagoela eta, interes publikoko arrazoi nabariengatik, ezin dela zerbitzua eten.

Emakida arautzen duten administrazio-klausulen agiriak 6. klausulan honako hau jasotzen du:

“6. IRAUPENA

Kontratuak hamar (10) urteko iraupena izango du, kontratu-administratiboa sinatzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita

Kontratuaren epemuga bukatzen denean, esleipendunak zerbitzua ematen jarraitu beharko du nahitaez, baldin Zarauzko Udalak eskatzen badio, gehienez sei hilabeteko luzapena eginda, esleipendun berriak zerbitzuaren kudeaketa bere gain hartu arte.”

Aurrekoa ikusita, eta azaldutako arrazoiengatik, Lurraldeko informazio-batzordeak irizpena eman ondoren, botoen gehiengoarekin Udalbatzarrak honako hau

ERABAKI DU:

Lehena.- ZARAUZKO GARBIKETA UTE enpresaren bidez kale garbiketa zerbitzua ematen jarraitzea kontratu berria gauzatzen hasten den arte eta, nolahi ere, gehienez sei hilabete (2021eko martxoaren 16a).

Bigarrena.- Urteko prezio hau onartzea. Zerbitzua egiten emandako denboraren arabera zenbateko proportzionala ordainduko da:

2020-2021 URTEA

KALE GARBIKETA

Azken berrikuspenaren ondoko gauzatze materiala	900.383,87 €
Berrikuspena: 2019ko KPIaren % 85 (% 0,8) = % 0,68	906.506,48 €
Kontrata bidez gauzatzea 2020 (GO+IO) = % 10	997.157,13 €
Inbertsioak	0,00 €
Zerbitzuaren ustiapena	997.157,13 €
BEZ (% 10)	99.715,71 €
GUZTIRA (BEZ sartuta)	1.096.872,84 €

Eta aztertzeko besterik ezean, batzarburu jaunak hala aginduta, bilkurari amaiera eman diote, arratsaldeko zazpiak eta hamarrean, eta nik, idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.